

2008ko martxoa • 40. zenbakia

GOR
A
I
N
A
U
T
E
R
I
A
K



aurkibidea

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	9
INAUTERIAK 08	17
EUSKARAREN TXOKOA	23
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	27
GU ERE KAZETARI	33



HAURTZAROKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA

2007-2010



Ikasturte hasieratik Bizikidetza Proiektuan zein urrats eman behar genuen informazioa ematen joan gara Haurtzaro Ikastolako asteroko buletinean.

Aurreko Txinpart alean Adimen Emozionala gaiarekin egindako guraso tailerren arrakasta aipatzen genuen. Jarraian gure ikastolako bizikidetzaren lanketarekin hasi gara eta ikasturte honetarako plangintzatua genuen lana ia bukatua dugula esan dezakegu.

Gurasoei dagokionez, 32 gurasoko taldea osatu dugu. Talde honetan, jada egina dago gurasoen ikuspegitik Haurtzaroko bizikidetzaren definizioa. Honez gain, diagnostikoa egiteko galdeketak pasatu eta jaso dira eta elkarriketak ere eginak daude.

Langileei dagokionez bi talde egin ditugu: irakasleak eta ez irakasleak. Bakoitza bere ikuspegitik Bizikidetza definitzera iritsi gara, eta diagnostikorako galdeketak ere bete eta jaso ditugu. Elkarriketak ere eginak daude.

Ikasleekin lanketa berdina egin dugu: LH 5etik DBH4 arteko ikasleekin. Ikasleek ere beren definizioa egin dute eta diagnostikorako galdetegiak eta elkarriketak burutu dituzte.

Honekin guztiarekin bi dokumentu garrantzitsu izango ditugu Haurtzaroko Bizikidetza Proiekturako:

- Bizikidetza definizioa: aipatutako definizio guztiak bateratzetik lortuko duguna. Hau izango da gure lanketarako iparra.
- Gure ikastolako diagnostikoa: galdeketetatik jasotako informazioaren eta elkarriketen ondorioz lortuko duguna.

Hau guztia maiatza bukaerarako edo ekainerako izango dugu eskuartean. Orduan, emaitza hauek aurkezteko bilera egingo dugu.

Datozen bi ikasturtetako lana emaitza hauen baitan definituko dugu.

Oso garrantzitsua izan da prozesu honetan hezkuntza komunitate guztiaren parte hartzea eta guztiok adierazitako jarrera irekia. Aurrerantzean ere elkarlan honetan jarraitzea beharrezkoa izango da, ematen ditugun urratsak guztiontzat ahalik eta bizikidetza osasuntsuenera hurbiltzeko baliagarriak izan daitezen.



EUSKO JAURLARITZAK HAURTZARO IKASTOLAKo DBH 4. MAILAKO IKASLEEK EGINDAKO LAN BAT SARITU DU



Joan den abenduaren 18an Gasteizen Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Kulturartekotasuna nire auzoan" izeneko II. Bideo-lehiaketan Haurtzaro Ikastolako DBH 4. mailako ikasleek lehen saria eskuratu zuten.

Izan ere, egun horretan izan zen bigarren edizioako sari banaketa Gasteizko Europa Biltzar eta Erakusketa jauregian. Nabil Selma Ahmed, Jose Rafael Vega Fures, Gorka Vicente, Mikel Garmendia, Julen Iturain eta Jhonatan Rumiñahi Burga Campo Haurtzaro ikastolako DBH 4. mailako ikasleek egindako bideoarekin eskuratu zuten lehen sari hori. Bideoari "Zorionak" izeneko izenburua jarri zioten eta lan horrekin iritsi dira lehen postura. Lehiaketa hau Eusko Jaurlaritzako Gizarte arloko Inmigrazio sailak antolatu du.

Arestian aipatutako ikasle hauek Bideogintza arloan egindako lanarekin aurkeztu ziren eta oso gustura daude lortutako emaitzarekin. Ez da lehenengo aldia Haurtzaroko bideogintzako ikasleek lortzen dutela sariren bat. Izan ere, iazko ikasturtean Irungo Berritzeguneak antolatutako edizioan ere sariarekin etorri ziren Oiartzuna.

Lerro hauen bitartez zorion-agurrik beroena helarazten diegu bai irabazle atera den bideoan parte hartu dutenei, bai berorren inguruan ibili den hezkuntza komunitate osoari. Bejondeiela!!

**EKINTZAK - IBILALDIAK**

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HAUR HEZKUNTZA			
HH1	OTSAILAK 13	IBARGAIN PARKERA	MAILAKIDEEKIN PASEATZERA
HH1	OTSAILAK 22	BASORA	GIRO EDERRAZ GOZATZERA
HH2	OTSAILAK 11	BASORA	GIRO EDERRAZ GOZATZERA
HH2	OTSAILAK 22	HERRIKO PLAZARA	HAINBAT LANBIDE E IKUSTERA
HH2	OTSAILAK 22	SUHILTZAILEEN PARKERA	LANBIDEA EZAGUTZEA
HH3	OTSAILAK 8	ALTZIBARRA	GIROAZ GOZATZERA
HH3	OTSAILAK 15	BASORA	MAILAKIDEEKIN PASEATZERA
LEHEN HEZKUNTZA			
LH1-LH2	URTARRILAK 22	DONOSTIARA	ZINEMAN FILM BAT EUSKARAZ IKUSTERA
LH1	OTSAILAK 7	IKASTOLAN	ELIKADURARI BURUZKO JARDUERA BATZUK EGITERA
LH1	OTSAILAK 28	IKASTOLAKO ARETO NAGUSIAN	JAIONE UGALDEBEREK EMAN ZIGUN GREZIARI BURUZKO SAIOA ENTZUTERA
LH2	URTARRILAK 18	DONOSTIAKO ZIENTZIA MUSEORA	UNIBERTSOA BEGIRATZERA
LH2	OTSAILAK 11	IKASTOLAN	JAIONE UGALDEBEREK EMAN ZIGUN UNIBERTSOARI BURUZKO SAIOA ENTZUTERA
LH2	OTSAILAK 21	IKASTOLAN	PRODUKTUEN ETIKETAK NOLA AZTERTU IKASTERA
LH2	OTSAILAK 22	AZPEITIKO INGURUGIRO ETXERA . ETA TREN MUSEORA	BIRZIKLAPENAZ SENTSIBILIZATZERA ETA TRENAREN HISTORIA IKUSTERA
LH2	MARTXOAK 6	"LA CASA DEL CAFÉ"	KAFEAREN EKOIZPENA IKUSTERA
LH3- LH4	URTARRILA	IKASTOLA	BIDE HEZIKETA LANTZERA
LH3	MARTXOAK 7	DONOSTIA	HAIZEA ETA ARTEA UZTARTURIK IKUSTERA
LH3	MARTXOAK 11	ERRENTERIA	ZINEMA EUSKARAZ IKUSTERA
LH4	OTSAILAK 22	DONOSTIA	INGELESEZKO ANTZERKIA IKUSTERA
LH 5-LH6	OTSAILEKO 2. HAMABOSTALDIAN	IKASTOLAKO GELETAN ETA KIROLDEGIRA	BIDE HEZIKETAKO SAIOEN (TEORIKOAK ETA PRAKTIKOA) BITARTEZ IKASTEN JARRAITU ETA IKASITAKOA PRAKTIKATZERA
LH 5	OTSAILAK 26- 27	IKASTOLAN	"ANOREXIA ETA BULIMIA"SAIOA:ELIKADURA OREKATUAREN GARRANTZIAZ JABETZERA (GURASOAK ETA IKASLEAK)
LH5-6	MARTXOAK 10	DONOSTIARA(6.M) ORERETARA(5.M)	"ZINEMA EUSKARAZ"-EN PRIOEKTUAN PARTE HARTU ETA FILMEAN AURKEZTEN DEN GAIA HAUSNARTZERA
LH 5-6	MARTXOKO LEHEN ASTEAN	IKASTOLAKO GELETAN	BIZIKIDETZAZ JARDUTERA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			
DBH 1-2-3-4	OTSAILEKO 2. HAMABOSTALDIAN	IKASTOLAKO GELETAN	AISIALDIARI BURUZKO HAUSNARKETA-GALDETEGIA OSATZERA
DBH 1-2-3-4	MARTXOKO LEHEN ASTEAN	IKASTOLAKO GELETAN	BIZIKIDETZAZ JARDUTERA
DBH 2	OTSAILAK 29- MARTXOAK 14	IKASTOLAKO GELETAN	DROGAMENPEKOTASUNA AZTERTZERA
DBH 3	OTSAILAK 11	IKASTOLAKO ARETO NAGUSIAN	AESLEME ELKARTEKO KIDEEKIN SOLASTERA
DBH 3	OTSAILAK 26	DONOSTIA	EKOZENTER ETA REZOLA MUSEOA BISITATZERA
DBH 4	URTARRILAK 16	DONOSTIA-IRUN	HAUTAZKO GAIEKIN LOTUTA: OIASSO MUSEOA ETA ANTZERKIA FRANTSESEZ IKUSTERA
DBH 4	URTARRILAK 23	IRUN	"FAAST-FOOD NATION" FILMA IKUSTERA
DBH 4	MARTXOAK 6	IKASTOLAKO GELETAN	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAKO ORIENTATZAILEAREKIN HITZ EGITERA



SUHILTZAILEEN PARKERA

LAU URTEKOOK LANBIDEEN GAIA LANDU DUGULA ETA, GURE GURASOEN LANBIDEAK ZEIN DIREN IKUSTEN ARITU GARA. LUISMA, JOSUREN AITA, SUHILTZAILEA DA, ETA DONOSTIAKO SUHILTZAILEEN PARKERA JOATEKO GONBIDAPENA LUZATU ZIGUN. GU, AUKERA HAU APROBETXATUZ, POZIK BERTARATU GINEN.

UF!! ZENBAT GAUZA IKUSI ETA IKASI DITUGUN.....

ESKERRIK ASKO, LUISMA!!





BIDE HEZIKETA

HAURTZARO IKASTOLAN



LH4ko ikasleen Oiartzungo Taxi bus-aren zerbitzua.



Azken bost urteetan bezala, 2007-2008 ikasturtean ere Haurtzaro ikastolako ikasleak Bide Heziketako ikastaroak jasotzen ari dira, Oiartzungo udala eta Oiartzun autoeskolaren eskutik.

Aurtengoan eskola agenda 21ean jorratzen den gaiarekin bateginik MUGIKORTASUN SEGURUA eta SOSTENGARRIA lortzea izango da ikastaro hauen xedea. Haur Hezkuntzako azken mailako haurrekin hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila arteko ikasle guztiengana iristen da proiektu hau.

Arauak edukitzearen beharra eta hauek **betetzearen garrantzia** azpimarratzea bilatzen da haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleekin egiten ditugun lanetan. Honela, hurrengo ikasturteetan landuko dugun araudiaren errespetua sustatzen baitugu. Hurrengo zikloetan, Oiartzungo

gaztetxoek **bidean seguru ibili** ahal izateko jakin beharreko kontzeptuak lantzen ari gara hainbat modutan. **Arriskuak** landu ditugu, hauek ondo ezagutuaz, nola **ekidin** daitezkeen ikasten baitugu. Bide batez, Oiartzunen mugitzeko bide eta modu seguruak ere bilatu eta ezagutzen ari gara. Haurren eguneroko bizitzarako baliagarriak izango diren ibilbideak zehaztuz. Zirkulazio arautegia ere landuko dugu, batez ere txirrindaz mugitzen diren ikasleei bidera-tuta, bideko erabiltzaile diren heinean, araudiaren ezaguera izan behar baitute seguru ibili ahal izateko.

Azkenik, DBHko ikasleekin urtetan jasotako informazioa, lan praktikoetara bideratzen saiatu gara. Honela, talde batzuek Oiartzungo ibilbide seguruak markatuko dituzte, "segurtasunezko mapa" bat eginenez, honela eskolatik ateratzen diren haurrek jakin ahal izango dute Oiartzunen segurtasunez mugitzeko zein ibilbide jarraitu beharko duten.



IKASYS: HAURTZARO IKASTOLA


LEHENENGOEN ARTEAN

Ikasle bakoitzak du bere estiloa eta erritmoa ikasteko orduan, eta bakoitzaren berezitasun horri nola erantzun behar zaion asmatzea da hezkuntzaren arazo nagusietako bat.

Eskolako zenbait eduki ariketetan trebatuz eta memorizatuz barneratzekoak dira, eta arlo horietan sortzen da zalantza gehien, hor ikusten baita alde gehien ikasletik ikaslara. Bakoitzaren berezitasun horri irtenbide egokia emateko, ikasleek ariketa batzuei erantzun behar izaten diete edo memoria ariketak egin behar izaten dituzte. Behar honi erantzuna eman nahian, **Ikastolen Elkarteak IKASYS Proiektua** sortu du.

Egoera sinpleetatik abiatuz (aprendizaia puntualak), ikasgelan eta eguneroko bizi-tzan sortzen zaizkion egoera-problema ulertzeko eta egoera hauei aurre egiteko, ikasleari bere beharrei egokitutako tresna sendoak ematea da proiektuaren helburu nagusia. **IKASYS Proiektuko jardueren bidez, ikasleak kompetentzia desberdinak lortzen** lagunduko dien eta helburu espezifiko moduan definitutako aprendizai puntualetan trebatuko dira. Beraz, jarduera hauen bidez kompetentzien garapenera bideratutako hezkuntza aprendizai puntualen sistematizazioa lortu nahi da.

Ikasys sistemaren osagaiak hiru dira. **Hardware** aldetik, eskola beharrei erantzungo dien eta erabiltzeko erraza eta merkea den IKASBOOK tresna informatiko mugikorra. Tresna hau gela arruntean integratuko da eta ikasle bakoitza bere ordenagailuarekin arituko da. **Software** aldetik hiru web aplikazio biltzen dira, jarduerak sortzeko eta antolatzeko aplikazioa, tresna informatiko mugikorrean jarduerak exekutatzeko aplikazioa eta irakasleek ikasleek egindako lanen garapenaren jarraipena egiteko aplikazioa.



Eduki kurrikular aldetik, arloka eta zailtasunaren arabera mailakatutako jarduera sorta biltzen du. 6-12 urte bitartean arlo bakoitzeko 45.000 ariketa sortu dira, guztira, 225.000 ariketa bost arlotan banatuta (Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Matematika eta Ingurunea).

Aste Santutik aurrera Gipuzkoako hiru ikastolatan probatuko dute, sistema hobetzeko asmoz eta etorkizunean denetan eskaintzeko asmoz. Hiru ikastolako horietako bat Haurtzaro ikastola izango da. Horrela, LH 2. maila-4. maila-6. mailako hiru gelatan baliabide hau erabiltzen hasiko dira.



HH1 GELAKO HAURRAK EZ DIEGU ARTISTA HANDIENEI INBIDIARIK. GUK ERE KANDYSKI ETA MIROREN ANTZEKO ARTELANAK EGITEKO AUSARDIA DUGU. BEGIRA, BEGIRA! ZER IRUDITZEN? KANDYSKIREN IZEN HORI BEHINTZAT EZ ZAIGU AHAZTUKO ETA MIROREN ANTZEKO GIZA IRUDIAK EGITEKO ERE GAI IZAN GARA.

HH1





LAU URTEKO GELARA MINA
ETORRI ZAIGU. SAHARATIK GURE
HERRIRA DUELA BOST HILABETE
IRITSI BAZEN ERE, IKASTOLAN
ORAIN DELA HILABETE HASI DA.
LEHENENGO EGUNETIK JARRERA
POSITIBOA ERAKUTSI DU, NAHIZ
ETA BERAREKIN HITZEZ EZIN
KOMUNIKATU. IZAN ERE, BERE
AMA HIZKUNTZA ARABIARRA DA.
GAZTELERA ETA EUSKARA EZ DITU
ULERTZEN ETA NOSKI, HITZ EGIN
ERE EZ.

BAINA, HALA ERE, EGOERA HAU
IZANIK, MINA EDERKI ERAKUSTEN
ARI DA ZEIN GAITASUN ETA
PREMIA DUEN BESTEekin

KOMUNIKATZEKO ETA HARREMANITZEKO; KEINU, SOINU, BEGIRADA ETA IRIRIBARREEN BIDEZ.

MINAK ARGI UTZI DIGU KOMUNIKATZEKO ERA EZBERDINAK BADAUDELA ETA HITZEZKOA BEZAIN BALIAGARRIAK DIRELA.

EZIN AHAZTU GELAKIDEEK IZAN DUTEN JARRERA GOXOA ETA IREKIA.

HH2





1. OR UDALZATNA ETORZEN GURE GELARA
 1. PUINAK KONTATZERA.

1. PUINAK ESATENTZUTEN NOLA
 1. BARVUK E AETMIA.

(BIL BEHAR DUGUN KALEAN ETA HENDIAN)

AUOUGAN ONDEGIAOAN ARU ULEREA PUN
 AUTOUGAN ONDO ESKRITA JOAN BILHAR DUGULA EDE ESAN DUGUN

ESKERRIKASKO-IGOR



A STEARTEAD STEGUNA
 SOKA SALATDAN BILIGARA
 ETAKANTABRIAKIKASTAIG
 OSODNITASAZENDU



EMEN MAKILAKIKI ANTZERK
 IA EGTE N ARIGAR



GORPUTZA ZAIN DEZAGUN!!!

LH1. MAILAKOAK

IKASI GENUEN

MENU OREKATU

BAT OSATZEN.

OSATU GENUEN

ETA DASTATU ERE BAI!

LH 1





ZENBAIT PROIEKTUREN BARRUAN LH LEHEN ZIKLOAN MAHAI JOLASAK LANTZEN DIRA; HALA NOLA, DAMA, XAKEA,...
HAU DELA ETA, IKASTOLAKO DBHKO ZENBAIT IKASLE, ASTEAN BEHIN, BEREN JOLASGARIAETAN, GURE GELETARA ETOR-
TZEN DIRA GURI XAKEAN JOLASTEN ERAKUSTERA.
GURE ESKERRIK BEROENAK EMAN NAHI DIZKIEGU IKASLE HAUEI, BEREN JOLASGARAIAKO TARTEAK GURI ESKAINTZEA-
GAITIK. MILA ESKER ETA BEJONDEIZUELA!!!

LH 2



Ni jai!

Azken arteetamiz mailakoa, trinatarrak mola

lirgi diren ibari duque. Guk ere, haiei moduan,

lana gogotik egin dugu. Baina lana

laskorrik ez. Trinatarrek festa galeak

dira oso eta ikurkizun paregabeak egiten

dituzte: zirkoa, musika, opera, su artifizialak

antzerkia, txantxengiloak, dantzak...

Begira zer malako txantxengiloak egin ditugun!

Txak txak

LH 3



HH 3




LH 4. mailakoak ARABIA gaia lantzen ari gara, bertan ipuinak eta olerkiak nola irakurri behar diren ikasi eta praktikatzear gain, olerkiak ere sortu ditugu, hona hemen adibide batzuk:

GURE MAILAKO IRAKASLEAK

Joxanen lata,
Liden artisautza,
Beñarren haserrea,
jangelakoen 14.30 arte zigortua,
musikako fa #,
KONTUZ ! erreboluzioa hasiko da. ! (Guillem)

NIRE FAMILIA

Amaren haserrea,
aittaren txorakeria,
amonaren janaria,
aittonaren garbitasuna,
Urkoren zaldia,
Lauraren zigarroa,
ahizparen messengerra.
A ZE FAMILIA ! (Udane)



HONDARTZA

Ni hondartza banintz, ur gatzatua izango nuke.
Ur gatzatua izango banu, gatz sortuko nuke.
Gatz sortuko banu, legatzari botako nioke.
Legatza jango banu, kaka latza egingo nuke.
Kaka latza egingo banu, itsasora joango litzateke.
Itsasora joango balitz, hondartzara joango litzateke. (Izaro)

ZURRUNBILOA

Ni zurrunbiloa banintz, arroz-esneak jango nituzke.
Arroz-esneak jango banitu, beteko nintzateke.
Beteko banintz, deskantsatuko nuke.
Deskantsatuko banu, asko aspertuko nintzateke.
Asko aspertuko banintz, dena suntsituko nuke.
Dena suntsituko banu, planetarik gabe egongo ginategi.

OIhanek
Kaixo
Esaten dizu
AguR.

ZErgatik
eSan
Tzenidan.
nIri (Leire)

Ni txingurria banintz, lan asko egingo nuke.
Lan asko egingo banu, nekatu egingo nintzateke,
eta ez nekatzeko
ohera joango naiz betiko. (Mattin)

LH 4



LH 5

GU, GEU, MUNDUAN KOKATZEN






KULTUR ARTEKO ELKARRERAGINA MUNDUAN



inauteri



inauteri



mozorro bat



bi aurpegi





EUROPA POWER POINT-EZ

Europak 11.282.488Km² ditu eta 730.894.078 biztanle. Beraz, 64,78 bizt/Km² bakoitzeko.

45 estatuk osatzen dute Europa.

Txanelako "Europa" gaia dela eta, Power Point erabiliz, aurkezpen bat sortzea da proiektua.

Ikasleak taldeetan banatu dira eta talde bakoitzak Europako estatu multzo bat landu du urrats hauek jarraituz:

- Informazio iturri desberdinak erabili (Atlasak, hitze-gi entziklopedikoak, internet...)
- IEstatu bakoitzaren lanketarako gidoi bat eratu:
 - Kokapena eta mugak
 - Hedadura eta biztanleria
 - Hiriburua eta hiri garrantzitsuak
 - Klima eta paisaia
 - Jarduera ekonomikoa
 - Historiako datu esanguratsuak
- Lortutako informazioaren analisia, eta gidoiaren araberako aukeraketa eta antolaketa.

+LETONIA



Informatikako saioak erabili ditugu aurkezpena prestatzeko eta hainbat tresnaren erabilpena landu dugu:

- Karpetak sortu
- Artxiboak sortu eta karpetetan gorde
- Interneten nabigatuz informazioa eta irudiak aurkitu
- Power Point aplikazioaren hainbat tresna eta ezaugarri ezagutu.
- Diapositibak diseinatu, animazioak pertsonalizatu...

LH 6





EUSKARAZ BIZI

BIGARREN KANPAINA: JOLASEAN EUSKARAZ

Otsailaren 18tik martxoaren 7ra bitartean





Herri kirolak:

1. astea: SOKATIRA
2. astea: TXIKORTA JOKOA
3. astea: TOKA

Aholkuak, oihuak,
Txalo eta aupak!
Euskarak kirolean
Lekua badauka.

Hori da jokaldia!
Ederra izan da!
Denok ulertzen dugu
Euskaraz esanda.

Tran lara lara lara,
tran lara lara lai...






ESKUTTUN



Bai girotzean bai DBHkoen antolaketan Eskuttuneakoak buru-belarri aritu dira.





GAZTE FOROA

Dakizuen bezala gazte foruan 12-16 (DBH1 -DBH 4) urteko gaztiantzat ekintzak antolatzen ttugu. Asteazkenero ikastola ta elizaldeko gaztiak, (al bada gela bakoitzeko pertsona bat edo bi, nolana denak ongi etorriyak izango dia) elkartzen ga ta hillabetin behin ekintza bat antolatzen dugu. Aurten egiya san gazte gutxi tortzen da billereta, bereziki ikastolakuk. Eztakit zer gertatzen den biño jendia ezto laneko oso animatua.

Oain arte in ttugun ekintzak auexek izan dia.

- 1.- urrian: kontzertua.
- 2.- azaroan: Arantzara irteera in nahi genun biño azkenin suspendittu in tzen.
- 3.- Abendun: sukaldaritza tallerra ta geo afai merienda.
- 4.- Abendun baita: BEC era egun pasa.(gabonetako PIN famosu oitako batea)
- 5.- Urtarrilla: eskulanak (globoflexia, abaloyuk..)
- 6.-Otsailla: eskiatzera

Gauza da gazte forua aurea atetzeko modu bakarra billereta tortzia dela. Jendia ta idea berriyak ber ttugu.

Aste santu bitartin billera denak elizalde herri eskolan ingo ttugu asteazkenero 3:30 tan. Aste santutik aurrera ikastolan ingo ttugu, biño beti ordu eta egun berdiñin.



Kuadrillategiko garai haiek...

Oraindik gogoan ditugu 14-15 urte genitueneko garai haiek. Ostiralero-ostiralero, eguzkiak agurtzen gintuenean, lagunak elkartzen ginen Ugaldetxorantz abiatzeko. Ekintza mordoa egiten genuen ostiraletan zein asteburuetan: tinbal ikastaroa, eskiatzera irteera (argazkian agertzen gara, gazte-gazte...), maskara tailerra, ping-pong lehiaketa, masajeak, termak, eskulanak...

Garai hartako gazte asko elkartzen ginen, eta primeran pasatzen genuen Ugaldetxoko eskola zaharretan igarotzen genuen denbora luze hartan. Ez ditugu erraz ahaztuko bizitutako une haiek guztiak... Dagoeneko 20 urte igaro dira, eta oraindik Kuadrillategik martxan dihardu, beraz, ez daukagu zalantzarik: hemendik urte batzuetara gure seme-alabak ere kuadrillategira joango dira!

Oiartzunen, 2028ko otsailaren 15ean





MATERIAL NATURALAK

Jostailu hitza entzun eta askotan kontsumoa, dirua, plastikoa... datozkigu burura.

Sehasketako gelan gaude eta merkatuak adin honetarako eskaintzen digun materialen artean (soinua egiten duten objektu txikiak, mobilak, musika duten jostailuak ...) plastikoa da nagusi.

Objektu batzuek baliagarriak izan arren, esperimentazio garaian, plastikoak ez dio haurrari aberastasunik eskaintzen. Objektuak ezberdinak dira, baina ehundura edo testura aldetik oso antzekoak.

Aurten sehasketako gelan, plastikoa ahal den heinean baztertzen eta material naturala sartzen saiatuko gara.

Naturak eskaintzen digun materiala txiki hauen manipulaziorako egokia da: bizia, aberatsa, ehundura ezberdinekoa, aldakorra...

Sehasketako gelan, material hauek bi modutara erabiliko ditugu; alde bate-tik, gelako apaintetarako eta bestetik haurren manipulaziorako.

Bertan gustura eta eroso senti gaitezen gelako espazioak atsegina eta goxoa izan behar du. Gela apaintzeko orduan material naturalak erabiliko ditugu, gure txokoari xarma berezia emanez.

Sehasketan, koltxoneta nahiz ispilua garrantzitsuak dira eta bertan beti izaten dugu zintzilikarioren bat. Aurtengo zintzilikarioa adar batez eta hosto lehorrez egindakoa da.

Loreek eta landareek ere asko apaintzen dute gure gela eta beti izaten dugu gelan kristalezko txarro bat eta bertan adarrak, landareak, loreak... jartzen ditugu.

Manipulaziora dagokionez, haurrak sei hilabete inguru dituenean, gerria sendotzen hasten zaio eta eserita gero eta denbora gehiago egoteko gai da. Orduan, altxorren saskia izango da eskainiko diogun materialik preziatuena. Bertan elementu naturalez eginiko objektuak sartuko ditugu, esate baterako: kotoia, egurrezko objektuak, harri ezberdinak, burdinazko objektuak, oihalak, kortxoa...

Haurra desplazatzen hasten denean, aldiz, altxorren saskia alde batera utzi eta haientzat objektu ezberdinak dituen kaxa bat prestatuko dugu. Kaxaren tapa altxa eta haien eskura material heuristikoa izango dute; kainabera zatiak, sokak, artilea, gaztainak, egur zatiak...

Altxorren saskia eta material heuristikoz gain, haurren manipulaziorako eta esperimentaziorako neurri ezberdineko kalabazak eskainiko dizkiegu, kolore ezberdineko loreak, papera, egurra, txikortak, kotoizko txongiloak eta... nola ez, gurekin haziko den arraina.



Koro Izagirre eta Maialen Bengoetxea Hautzaro ttiki. Sehaskak





IGERIKETA IKASTOLAN

Azken urteetan ohiko egin zaigun moduan, aurten ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen hiru mailatan dauden ikasleek, igeriketaz gozatzeko aukera izango dute Udalak eta Foru Aldundiak bideratutako eskola programari esker. Ikastaro hauek ikastolako curriculumean txertaturik daude eta ikasle guztiek parte hartzen dute.

HHko ikasleek lehen hastapenak ematen dituzte ikasurte bukaeran, maiatzean. Urari beldurra kendu eta familiarizatzen joateko helburuarekin astean behingo saioak antolatzen dira beren tutore eta gurasoekin jolasean ibiliz,.

Lehen Hezkuntzako lehen hiru mailatan errepikatzen dugun ekintza ere bada igeriketa. Izan ere, igerian ez dakitenek urari dioten beldurra kendu eta igeriketan lehen urratsak ematen jarraitzeko aukera izaten dute. Esperientzia gehiago dutenek, berriz, igeriketa modalitatea eta trebezia hobetzen dituzte.

Astelehenetik ostegunera eta bost astez (20 saio), LHko ikasleak Elorsoro kiroldegira hurbiltzen dira arratsaldero. Bertan igerilekuko begiraleen laguntzaz, gela bakoitzak ordu erdiko saioa egiten du: 14:45etik 15:15era lehenengoak, 15:15etik 15:45era bigarrenak eta 15:45etik 16:15era azkenak. Lehen egunean begiraleek ikasleen gaitasunak ebaluatzen dituzte, eta horren arabera ikasleak bi taldetan banatzen dituzte.

Aurten lehenak 3. mailakoak izan dira. Otsailaren 11tik martxoaren 13ra.

Hurrengoak 2. mailakoak izango dira. Martxoaren 31tik apirilaren 30era.

Bukatzeko 1. mailakoak joango dira. Maiatzaren 5etik ekainaren 5era.





ZER EGIN DEZAKEGU HAURREN ELIKADURA HOBETZEKO?

Gaur egun haurren arazoen artean elikadura desegokia dagoela nabari da. Umeek jaten dutena aztertzen hasita, garbi ikus daiteke jaten dituzten elikagaiek azukre eta gantz asko dituztela eta gai natural-frutak, barazkiak, arrainak gutxi. Gainera, Consumer Eroski-k 2005eko irailean eginiko azterlaneko emaitzetan hautematen den bezala, eskolako jangeletan ere haurrak ez dira behar bezala elikatzen. 32 330

ikasle biltzen dituzten 201 eskolako jangeletan bi asteko otorduak aztertu zituen txostenaren arabera, azterturiko janarien %24k proba gainditzeke utzi dute eta %36k onartzeko moduko kaskar batean geratu zen, sendagile, dietagile eta pediaren aholkuei jarraiki. Aurretik aipatutako hutsuneak hauteman ziren bertan ere: arrain, barazki eta fruta freskorik ez, eta postre gozo, aurrekuzinatu eta frijitu gehiegi.

Haurren dieta desorekatu horren ondorioak beraien osasun egoeran agertzen dira: Espainiako haur eta gazte populazioaren %26k gehiegizko pisua du eta %14 gizena da; horri esker, Espainia, Erresuma Batuen ondotik, Europar Batasuneko haur lodi gehien dituen bigarren estatua da. Adierazle horren alderdi kezagarriena azken 15 urteetan hirukoiztu egin da. Hau gutxi balitz, helduaroan intzidentzia larrienekoak diren gaixotasun kronikoen garapenean eragin zuzena du: trastorno kardiobaskularrak, hipertentsio arteriala eta giltzurruneko arazoak.

Nire iritziz, arazo honen eragile nagusienetako bat gurasoek haurrei jaten emateko eta irakasteko dituzten zailtasunak dira. Zenbaitek uste du, denbora faltagatik prestatu behar ez den edo erraz presta daitekeen janaria ematea bide errazena dela, izan ere, aukera hau da denbora gutxien kentzen duena. Nire iritzia, ordea, bestelakoa da. Alde batetik, janari



mota hori umearentzat kaltegarria da. Hori dela eta, uste dut umeari behar duen denbora eskaintzea hobe dela gero ondorio kaltegarriak ez izateko, nahiz eta beste beharretarako denbora gutxiago izango duzun. Bestetik, ongi jatearen aztura txertatzeko tresnarik egokiena diziiplina dela pentsatzen dut. Ordutegi finkoa, toki lasaia, pazientzia eta pertseberantzia gurasoentzat lagungarri izango dira dituzten zailtasunak gainditu ahal izateko.

Honez gainera, sarritan haurrek jakiak hartzeari uko egiten diote. Etxean nahiz kalean elikatzen irakasteko garaian, sendotasun eta koherentzia falta dagoelako gertatzen da hau, baita gurasoek malgutasunez jokatzeko dutelako ere. Modu honetara, haurrak jokatze horretara ohitzen dira eta honek oztopoak ezartzen ditu egoeraren aurrean. Hauek gainditzeko modurik egokiena malgutasuna alde batera utziz, arau trinkoak ezartzea da, zorrotasun gehiagorekin jokatzeko. Honela, txikiek aurki ikasiko dute beren oihu eta kasketek noiz diren baliagarri eta noiz alferrikakoak. Honez gain, egokia da haurrak hainbat jaki zergatik ez dituen jaten jakitea. Berari galdetu behar zaio etxeko eta jantokiko zein jaki dituen gustukoenak eta higuigarrienak, eta horren zergatia (prestaketa, osagaiak, ukuitua).

Laburpen modura adierazi behar dut haurren elikadura hobetu ahal izateko diziiplina tresna egokia dela. Hau ez ezik, malgutasuna baztertuz, sendotasuna eta koherentzia funtsezkoak dira elikatzen irakasteko garaian. Aldi berean, arauak ezartzea komeni da, haurrak ikas dezan bere oihu eta kasketak noiz diren baliagarri eta noiz ez.

DBH 4. mailako Odei Mujika



Oinarrizko eskubidea erostera kondenatuta?



Gaur egun gazteek gurasoen etxea, bataz beste, 31 urterekin uzten dute. Honen arrazoiak, nagusiki, soldata eskasa eta etxebizitza garestia izan ohi dira.

Estatistikak 18 eta 34 urte artekoak hartzen ditu gaztetzat, eta beren erosketa-ahalmena aztertu ondoren, benetan urria dela onartu dute. Hamar gaztetatik hiru besterik ez dira etxebizitza erosteko gai. Hamarretik bat etxea bakar-bakarrik erostera ausartzen da eta gainerako bederatzia bikote, lagun edo gurasoekin batera zorpetzen dira.

Konstituzioak diosku etxebizitza izatea norberaren eskubidea dela, baina ez du adierazten eskubide horiek izatea zein garestia den. Alokairu-sistemak ez du arrakastarik izan eta, gainera, Europako herrialdeekin alderatuz gero, zerrendaren azkeneko tokietan gaudela ikus dezakegu.

Esan beharra dago Euskal Herriko hainbat herritan metro karratua 6000€-ra iritsi dela dagoeneko, beraz, esan dezakegu, 100 metrok 100milioi € balio dituela.

Lehenik eta behin, oso garrantzitsua da jakitea egungo gazteen bataz besteko soldata alokairuen prezioen bataz bestekoa bezalakoa dela ia, alokairuak 600 eta 800€ artean baitaude. Ez al zaizue iruditzen gazteak oinarrizko eskubidea dena erostera kondenatuta daudela?

Gainera, etxebizitza sektorean espekulazio garrantzitsua ematen ari da azken urteotan. Hau da, 20 milioi €ko balioa duen etxearen jabeak 30 milioitan saldu nahi badu erraz asko izango du saltzeko; baina erosleak gazteak izango al dira? Ez, noski. Bestalde, egiten ari diren etxeetariko asko, txaletak eta luxuzko etxeak dira eta, egia esan, ez du zentzu handirik. Enpresa eta partikular asko eta asko sekulako dirutzak inbertitzen ari dira etxebizitzetan; beraz, argi dago guztiaren atzean izugarrizko negozioa dagoela. Ez al dugu esan etxebizitza guztiok izan beharko genukeen eskubidea dela? Horregatik, egin ezin daitekeena da batzuk ikaragarritzko etxeetan bizi diren bitartean edo etxebizitza bat baino gehiago dutelarik, beste batzuk kalean edo gurasoenean egotea.



Gero eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago egiten ari diren arren, oraindik ere garestiak dira hainbat eta hainbat gazterentzat, etxebizitza hauen prezioak 120,000€ eta 168,000€ren artean baitaude.

Badakit 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera 22-30 urte bitarteko eta 22,000€ baino gutxiago kobratzen duten gazteei lau urtetan zehar hilabeteko 210€ko diru-laguntzak ematen ari direla. Nire ikuspuntutik gobernuaren partetik ekintza ona da, baina, bestalde, oso laguntza urria dela uste dut benetako prezioekin alderatuz.

Estatistiken arabera, hemendik aurrera ere etxebizitzaren prezioek gora egiten jarraituko omen dute, baita alokairuzkoetan ere; eta jakina izanik ere, ezer gutxi egiten da igoera hori ekiditeko.

Gaur egun gazteen artean garrantzi handia duen arazoa gainditzeko, behar-beharrezkoa ikusten da lehenik eta behin jendea kontzientziaztea eta, horretarako, hitzaldiak antolatzen eta panfletoak egiten hasiak dira dagoeneko.

Gazteak hainbat soluzioren alde daude; esaterako, udalari alokairuen prezioak jaisteko eskatzea. Gainera, proposamen gehiago ere egin dira; aurretik aipatu ditudan babes ofizialeko etxebizitzaren programaren barruan, gazteen artean konpartitzekoak izango diren alokairuzko pisuak eskaintzea eskatzen dute.

Bestalde, ideia berritzaile eta egokia da etxebizitza erosi nahi duen gazteari gobernuak eman diezaioala behar duen dirua eta gazteak itzul dezala diru hori urteetan zehar, baina interesik gabe betiere.

Oraindik aipatu ez ditudan etxe hutsei dagokienez, udalari etxe horiekiko ikerketa sakona egitea eska

diezaiokegu. Horrela, etxe horietatik erabilgarriak direnen jabeengana jo, ados jarri eta etxe horiek alokairu duin batean jartzea izango litzateke hurrengo pausua.

Gazte askoren arabera arazo larri honen erantzuleak zein diren argi dago. Hasteko, herrietako udalak direlako non eta nola eraiki daitekeen diotenak. Hala izanik, eraikitzaile enpresa guztientzat negozio biribila da. Hauekin batera, inmobiliariak daude, dirutza handiak irabazten dituztelarik. Esaterako, inmobiliaria askotan etxea erosi nahi dutenen izugarritzko zerrendak daude, eta 6 edo 7 etxe bakarrik salgai.

Askotan aipatu izan den alternatiba okupazioa da. Hala ere, etxe hutsetan sartzea errebindikazio hutsa dela esan genezake. Gazteak ez baitira etxe huts bat bakarrik okupatu nahian ibiltzen; taldean egiten den ekintza bat da, gaur egungo egoera salatu eta gizartea soluzio baten beharrean dagoela erakutsi ahal izateko.

Laburpen modura esango dugu, hain pipilean dagoen etxebizitzaren arazoa konpontzeko lehenik eta behin hauen prezioak jaitsi beharko liratekeela. Gainera, iruditzen zait gobernuak ere diru-laguntza gehiago ematea ideia bikaina dela; hau da, diru publikoa hain garrantzitsuak ez diren aspektuetan administratu ordez, etxebizitza arloan administratzea. Bestalde, etxegintzan dabilzan enpresek ere gazteen egoera ekonomikoa kontuan hartzea egokia dela uste dut. Horrela, gaur egun hain aipagarri eta gazteentzat baztertu ezinezko gai hau hemendik urte gutxira entzute gutxiagokoa izango dela ziurta genezake.

**DBH 4. mailako
Oihane Uitz**





HAURTZARO DANTZA TALDEA

INAUTERIAK 2008



FESTA!!! ALGARA!!! MUSIKA!!! INTXIXUAK!!! SUA!!! SORGINAK!!! DANTZA!!!

Nola ez; dantza ere izaten da protagonista inauterietan. Euskal Herriko txoko guztietan ospatzen dira goizago edo beranduago inauteriak; herri bakoitzak bere ohiturekin eta Oiartzunen ere gure ohiturak jarraitzen ditugu.

Larunbat ilunabarra hurbiltzen den heinean herriko plazaren inguruan, kuadrila ederra elkartzen da; haur eta gazteak, neska-mutilak, aiton-amonak eta bertan izaten dira gure Haurtzaro Dantza Taldeko dantzari finak ere, "Azeri dantza" dantzatzeko, neskak mutilez, mutilak neskez. Bikotekako dantza izaten da, baina soka luzea osatzen da. Aurten esaterako, ia 40 dantzari izan ditugu, denak 8 eta 13 urte bitartekoak.

Neska gehiago izaten dira normalean euskal dantzan eta horrek bikote batzuk neskaz osatzea behartzen du, baina inauteriak direnez, ez da eragozpena, dagokion arropa jantzi eta dantzara ateratzeko!

Neskaz jantzen diren mutilak, ezpainak eta masailak gorri-gorri pintatu, belarritako eta lepokoak jantzi eta apain-apain ateratzen dira gonak alde batera eta bestera graziarekin mugituz. Mutilez jantzen direnak, txapela buruan dutela ateratzen dira eta batzuek bibotea ere jartzen dute egun honetarako.

"Azeri dantza" amaitutakoan, dantzariak kalejiran herriko beste neska-mutilak eskutik hartuta eta txistularien doinuak jarraituz, Urkabe aldera begira jartzen dira, bertatik jaisten baitira suzko antortxak eskuan dituztela bidelagun sorgin eta intxixuak.

Hauek Doneztebe plazara iritsitakoan, plaza erdian sua pizten dute eta Haurtzaro Dantza Taldeko dantzariak "Sorgin dantza" dantzatzeko dute.

Sorgin Dantza inauteriko Dantza da. Mutilak izaten dira sorgin eta gizonezko. Baina dantzari erdiak emakumezko ageri dira, eta sorginak deritzaie. Beste erdiak mutilak dira eta Intxixuak deitzen zaie euskal tradizioan. Dantzako keinuak eta pausoak barregarritzko saioa izatera bultzatzen dute. Antzerki giroa berehalaxe igertzen zaio pauso bakoitzean. Lelo batek, errepikatuz, bereizten ditu, bai binaka besarkaturik biraka aritzen direnean, bai bi taldetako bakoitzak beste laguna gonak altxeaz inguratzen duenean eta batez ere azkeneko kalejiran. Dantza hau suaren inguruan egiten dute dantzariak eta saltsero samarra izaten da.

JAI KOLORETSUA IZATEN DA; plaza kolore biziz apaindua, suaren txinpartak, umorea, festa giroa, musika, dantza eta herritarrak uztartuz!!!

AURTENGOAK JOAN DIRA ETA DATORREN URTEKOEN ZAIN GERATUKO GARA!





GURASOEN PARTE HARTZEA INAUTERIETAN

Zein izan da zure/zuen parte-hartzea inauteritan?

HH 3ko GURASOAK

GURE SEME ALABAK IKASTOLAN HASI ZIRENETIK, URTERO PARTE HARTZEN DUGU INAUTERIETAN. GUSTURA ETORTZEN GARA JANTZIAK EGITERA, MATERIALA PRESTATZERARA..., AURTEN ITSASONTZI PIRATA EGIN DUGU. GOGOKOA DUGU, GUSTATZEN ZAIGU JAIALDIAREN PARTE SENTITZEA. BESTALDE, IRUDITZEN ZAIGU ZENBAT ETA JENDE GEHIAGOK PARTE HARTU, ORDUAN ETA HOBETO ATERATZEN DELA IKUSKIZUNA.



LH 1. ZIKLOKO GURASOAK

Beti prest egon gara edozein gauza egiteko. Ilusioz egiten dugu.

Gure seme-alaben gaiaren harira mozorrotzen gara, horregatik eskertuko genuke lehenago jakitea zein izango den gaia, prestatzeko denbora gehiago izateko.

Urtetik urtera mozorro landuagoak egiten ditugu.

Eskerrak eman nahi genizkioke, Xabier Landari bere pazientzia eta materiala lortzeko harreragatik.

Nerea, Gurutze, Maria Luisa, Lurdes, Iñigo Izagarai, Iñigo Orobengoa, Feli, Ane, Nekane, Lurdes, Yolanda, Patricia, Lorea, Agurtzane, Karlos eta Jaione.




LH 2. ZIKLOKO GURASOAK

Aurten lehen aldia da guraso taldearekin atera naizela, eta primerako esperientzia izan da. Orain arte seme-alaben inguruan bizi izan ditut inauteriak beti. Gurasoen beharra izaten zuten mozorroak egiteko edo egunean bertan parte hartzeko. Aurten, ordea, guraso taldearekin ateratzen diren batzuek jendea behar zutela aipatu zidaten. DBHkoak bukatzen doazela eta guraso berriak animatu behar dugula. Taldea irekia dela eta denontzat dagoela lekua. Zenbat eta gehiago hobe.

Animatu nintzen eta primerakoa izan da esperientzia. Atera aurretik nerbio puntu bat ere banuen, baina dantzan hasi orduko joan ziren urduritasunak eta ikaragarri disfrutatu nuen. Gainera, arratsaldea ez zen hor bukatu. Gero meriendatxoa egin genuen gurasoen txokoa eta handik zaharren egoitzara joan ginen. Egun konpletoa.

Badakizue, taldea irekia da eta animatu!!!

María Jesús Galar





LH 3. ZIKLOKO GURASOAK

Maider, gure alaba, ikastolan hasi zenetik parte hartu izan dut.

Hasieran, ikasleak oso txikiak zirenez, esku bat botatzeko premia handia izaten zuten: mozorroak prestatzeko garaian, entsaiotan, eta inauterietako egunean bertan, noski, desfilean eta jaialdian.

Horrela izan zen nire eta gelako beste gurasoen parte hartzea Lehen Hezkuntzako 2. maila arte. Bigarren mailatik aurrera, aldiz, gure presentzia hain beharrezkoa ez zela erreparatu ginen eta ikasleei beraiei euren bidea beren kabuz egitea tokatzen zitzaizela eta guk parte hartzetik utzi egin genuen. Esan beharra dago etxean ere izaten dugula gure seme-alabei laguntzeko parada, mozorroaren osaketan...

Bestalde, gurasoen sailean parte hartzeko behin baino gehiagotan eskatu didate. Animatzeko, bilduko garela...Baina lanean izan dudana ordutegiagatik (une honetan aldatua daukat, egia esan) ezin izan dut entsaiotan parte hartu. Hala ere, orain arte ezinean izan banaiz ere, horrek ez du esan nahi betirako horrela izan beharko duenik eta ... hurrengoan, nork daki, agian partaide gisa bertan izango naizue...

Jesus Olaizola



DBH 1. ZIKLOKO GURASOAK

Gurasoen partaidetza ikastolako leku edo arlo guztietan garrantzitsua eta beharrezkoa ikusten dugu eta festa honetan bai noski.

Ikastolan inauterietan ateratzen diren guraso taldean parte-hartzen dugu azken urte hauetan, aurten ere parte hartu dugu.

Taldean dagoen giroa entsaioetan, ekitaldian eta ekitaldia amaitutakoan benetan ona da eta horrek animatzen zaitu urtez-urtekoan parte-hartzen.

Ah!!! Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu guraso gehiago animatzeko, datozen inauterietan hurbildu eta denon artean ideia berriak landu eta partze-hartzen.

Patri Muñoz, Idoia Etxebeste, Javier Susperregi, Nere Ibarguren

DBH 2. ZIKLOKO GURASOAK

Ne parte-hartzia izan da... azkeneko 18 urti hoitan bai, bat edo hola galduko nun. Hasi giñan lehendabizi Altxibartikan emakume kuadrilla bat mozorrotuta etortzen eta geo pixkan-pixkan hoztutzen-hoztutzen jon tzin eta azkeneko urti hoitan bakarrik etorri naz.

Ne mozorrua denetatik izan da, xelebrina izango zen, behin fraile batez mozorrotuta etorri nitzan, minon aldrebes, ne besuak zin hankak eta hankak besuak. Ordun burua zon bian eta pausua ematen nun besuan gañin bezela.

Ta aurtengoa, berriz, izan da guraso kuadrillak esan zin bi pertsona beren zittuzten eta pentsatu zuten atton-amonak ber zittuztela, silla de ruedasetan bat, eta zutik bestia, berdin zen attona, amona edo aldrebes. Etorriko nitzala eta xou bezela gustatu zin eta parte hartu nun. Taldin aurreneko aldia da, beti ne gisa ibili izan naz, beti ongi pasatu izan dut, lehen eta aurten e bai gustatu zin.

Netzako mezu du inauteritan parte hartzia, oso ongi pasatzen dut eta mezu du. Mezu du animatzia.

Jone Retegi



DENON ESKURA



MATRIKULATZEKO EPEA ZABALIK

Izena emateko epea: martxoaren 10etik apirilaren 4a arte

Bulego ordutegia: 8:00 - 13:00 eta 14:30 - 17:30

Telefona: 943491659

www.haurtzaroikastola.net

oiartzun@ikastola.net



“Oiertzuarren
zerbitzura gaude”

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 - Pol. Lanbarren - 20180 OIARTZUN

☎ 943 49 13 75 • Fax 943 49 34 62



Biok
ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrta Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrta Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN
MERKATARITZA ZENTRUA